


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,1 igo dira 2020ko uztailean aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearekin alderatuta (2020ko uztaila 2019ko uztailaren gainean), kostuak % 0,8 igo dira

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,1 igo da 2020ko uztailean, aurreko hilabetearen aldean; urte arteko terminoetan, berriz, % 0,8 igo da, Eustaten datuen arabera.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, lehengaien kostuak % 0,2 igo dira, eta eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0).



Uztailean, Etxegintzaren azpisektoreak % 0,1eko hil arteko igoera izan du lehengaien kostuari dagokionez, eta Obra Zibilaren azpisektoreak % 0,5ekoa. Urte arteko bilakaeran, bi azpisektore horiek zeinu ezberdina izan dute: Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,8 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 0,4 jaitsi.

Sektoreak kontsumitu dituen lehengaien prezioen artean nabarmentzekoak dira hazkunde hauek 2020ko uztailean, 2019ko uztailarekin alderatuta: *Mineral ez-metalikoak* (% 4,1 gora), *Material elektrikoa* (% 1,5) eta *Material elektronikoa* (% 1,2). Aitzitik, lehengaien prezioetan beherakadak izan dituzte hauek: *Petrolio finntzea* (% 24,0 behera), *Energia*

elektrikoa eta gasa (% 5,9 behera) eta hala Makineria nola Metalurgia (% 3,8 behera bi kasuetan).

**EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA.
ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Uztaila**

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m/m-1	m/m-12
GUZTIRA	106,1	0,1	0,8
Eraikinak	106,2	0,1	1,0
Obra zibila	105,7	0,4	0,1
LEHENGAI	105,5	0,2	0,5
Eraikinak	105,6	0,1	0,8
Obra zibila	105,0	0,5	-0,4
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62